



UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES

H10-26

Eskola Publikoan, gobernantzan hazi eta haziarazi

Nork zuzendua: **Iñigo Salaberria Aliaga**

Presidentea

Heize, euskal eskola publiko ikastetxeen elkarte

Saioa Landa Lazcano

IDAZKARIA

OROKIETA HERRI ESKOLA

Jardueraren lekua Miramar Jauregia, Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

**Jardueraren
hizkuntza ofiziala** Euskara

**Jardueraren
helburuak** Ikastetxeetako antolakuntza eredu aurreratua ikasleen beharren mesedetan eraikitzea.

Pertsonen zaintza oinarri, eremu profesionalizanteetarako jauzia irudikatzea.

Ibilbidean aurrera egiteko eta ekiteko baldintza egokienak zehaztea.

Aldaketarako bidelagunak zaindu eta baliabideak hautatzea.

Ikaskuntza-irakaskuntzarako kudeaketa tresna berriak aztertu eta balioztatzea.

Ibilbide profesionalaren inguruan begirada kritikoa sustatzea

Laburpena

Uda Ikastaro hauetan, Euskal Eskola Publikoko zuzendaritza taldeen eguneroko jardunean eta etorkizuneko erronketan eragin zuzena duten gako estrategikoak landuko dira. Ikastetxeen gobernantza, autonomia, lidergo ereduak, rol profesionalen bilakaera eta komunitate-sareen indartzea izango dira ardatz nagusiak, beti ere ikastetxea gizartearen behar aldakorrei modu koherente eta humanizatuan erantzuteko prestatzeko asmoarekin.

Lehenik, gobernantza eredu berri baten beharra aztertuko da, hezkuntza-sistemaren egiturak eta prozesuak eguneratzeko premia azpimarratuz. Horren testuinguruan kokatzen da kokapen normatiboaren azterketa, eskolei eta zuzendaritzei eragiten dieten marko juridiko eta arauen eginkizuna eta mugak argituz.

Ondoren, autonomia eredu berri baten bila egingo den gogoetak ikastetxeek benetako erabakimena eta eraginkortasuna izan dezaten behar diren baldintzak mahai gainean jarriko ditu. Autonomiaren gaia sakontzeko, bi arrisku nagusi aztertuko dira: bidelagun gabeko autonomia, sarritan utzikeriara hurbiltzen dena, eta erabaki ahalmenik gabeko autonomia, gehiegizko tutoretzak baldintzatzen duena. Autonomia, gaur egungo eskakizun berriekin uztartu behar da, eta hortik dator lidergo eredu eta funtzio betetze berrien premia.

Egun hau amaitzeko, belaunaldi arteko begiradari lekua emango zaio, profesional, emozional, digital eta gizatiarrak diren partekatze aukeren garrantzia azpimarratuz. Zuzendaritza taldeetan zaintzak, esperientziaren transmisioak eta berrikuntzarekiko konpromiso partekatuak duen balioa nabarmenduko da.

Bigarren blokean, ikastetxeek gizartearen testuinguru berrietan duten eginkizuna izango da hizpide. Gizartearen eskakizun berriei erantzuteko bideek hezkuntza-komunitate osoaren egokitzapen beharra erakutsiko dute. Horri lotuta, sakonduko da irakasle eta hezitzaileen arteko muga–elkargune lausoan: rolak, identitate profesionalak, betebeharrak eta bakoitzari eskatzen zaion konplexutasuna. Rol horiek ulertzeko, ezinbestekoa da ikerkuntza bera hezkuntza-praktikaren parte gisa kokatzea, eta baita irakasleen ofizioaz–afizioaz hausnartzea ere: nola uztartzen diren bokazioa, profesionaltasuna, konpromisoa eta eguneroko erronkak.

Azkenik, komunitatea eta saretzea izango dira ikuspegia ixteko tresna nagusiak. Ikastetxea komunitate gisa ulertzeko tresnak aztertuko dira, eta saretze dinamika anitzak aberastasunerako eta aniztasunaren kudeaketa egokirako funtsezko zutabe direla erakutsiko da. Teknologia eta gizatasunaren arteko oreka lantzeko, adimen artifizialaren eta adimen emozionalaren arteko harremana jorratuko da, zuzendaritza eta irakaskuntza praktiken ikuspegitik. Eta amaiera praktikoago batean, espazio eta denboraren antolaketa efizientearen inguruko gakoak azalduko dira, antolaketa eraginkorrak ikaskuntza eta ongizatea nola indartzen dituen ikuspegi konkretuekin.

Egitaraua

01/07/2026

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Hizkuntza: euskara Iñigo Salaberria Aliaga / IKASTARO ZUZENDARIA / Heize, euskal eskola publiko ikastetxeen elkarte Saioa Landa Lazcano / IKASTARO ZUZENDARIA / Heize, euskal eskola publiko ikastetxeen elkarte
09:25 - 10:30	GOBERNANTZA EREDU BERRIAK Hizkuntza: euskara Begoña Pedrosa Lobato / HEZKUNTZA SAILBURUA / EUSKO JAURLARITZA
10:30 - 11:15	AUTONOMIA EREDU BERRI BATEN BILA Hizkuntza: euskara Iñigo Salaberria Aliaga / PRESIDENTEA / Heize, euskal eskola publiko ikastetxeen elkarte
11:15 - 11:45	Geldiunea
11:45 - 13:15	BIDELAGUN GABEKO AUTONOMIA, UTZIKERIA / ERABAKI AHALMENIK GABEKO AUTONOMIA, TUTELA Hizkuntza: euskara PROMETEAko kideek gidatutako saio parte hartzailea

Saioa Landa Lazcano

/ HEIZE KOORDINATZAILEA / Heize, euskal eskola publiko ikastetxeen elkarte

13:15 - 13:50 MENTORETZA PROZESUAREN BIZIPENAK

[Hizkuntza: euskara](#)

Itziar Agirre Vicente / IKASTETXE ZUZENDARIA / OÑATI BHI

Jone Agirregomezkorta Leturia / IKASTETXE ZUZENDARIA / ELGOIBAR BHI

13:50 - 14:00 Sintesia

02/07/2026

09:00 - 10:00 GIZARTEAREN ESKAKIZUN BERRIEI ERANTZUTEKO BIDEAK

[Hizkuntza: euskara](#)

Lander Asla Iglesias / HEIZE JUNTAKIDEA / Heize, euskal eskola publiko ikastetxeen elkarte

10:00 - 11:00 IRAKASLE ETA HEZITZAILEEN ARTEKO MUGA-ELKARGUNE LAUSOA

[Hizkuntza: euskara](#)

Maialen Oiartzun Irastorza / IRAKASLEA IKERLARIA / EHU

11:00 - 11:30 Geldiunea

11:30 - 13:00 IRAKASLE OFIZIOAZ-AFIZIOAZ

[Hizkuntza: euskara](#)

PROMETEAko kideek gidatutako saio parte-hartzailea

Saioa Landa Lazcano

/ IKASTARO ZUZENDARIA / Heize, euskal eskola publiko ikastetxeen elkarte

13:00 - 13:45 IKasle-irakasle-ikerlariAK

[Hizkuntza: euskara](#)

Markel Rodriguez Holguin / IRAKASLEA / EHU

Aitziber Sagastizabal Saez / IKASLEA / EHU

13:45 - 14:00 Sintesia

03/07/2026

09:00 - 10:00 ADIMEN ARTIFIZIALA ETA ADIMEN EMOZIONALAREN ARTEKO OREKA

[Hizkuntza: euskara](#)

10:00 - 10:45

Elia Revuelta Estrada / ZUZENDARIA / URIBARRI BHI

GOBERNANTZA ESPERIENTZIA AURRERATUAK

[Hizkuntza: euskara](#)

Okondo, Haur Hezkuntza eta kalitatea / Izarraizpe Ikastola Publikoa, Hezkuntza
Proiektu bateratua / Unamuno BHI (Gasteiz), Ikerketa Batxilergoa

Edurne Rangel Gutierrez / ZUZENDARIA / OKONDO ESKOLA

Lorea Gabiola / ZUZENDARIA / UNAMUNO BHI

**Jexux Larrañaga Morgado / ZUZENDARITZA TALDEKIDEA / IZARRAIZPE
IKASTOLA PUBLIKOA**

**Joseba Larrañaga Sudupe / ZUZENDARITZA TALDEKIDEA / IZARRAIZPE
IKASTOLA PUBLIKOA**

10:45 - 11:15

Geldiunea

11:15 - 12:00

ESPAZIO ETA DENBORA ANTOLAKUNTZA EFIZIENTEAK (PRAKTIKA ONA)

[Hizkuntza: euskara](#)

Miren Odriozola Gomez / KOORDINATZAILEA / ESKOLA TXIKIAK

Jugatx Ormaetxe Gabilondo / KOORDINATZAILEA / ESKOLA TXIKIAK

12:00 - 13:30

BELDURRAK

[Hizkuntza: euskara](#)

PROMETEAko kideek gidatutako saio parte-hartzailea

Saioa Landa Lazcano

/ IKASTARO ZUZENDARIA / Heize, euskal eskola publiko ikastetxeen elkarte

13:30 - 14:00

Itxiera

[Hizkuntza: euskara](#)

**Saioa Landa Lazcano / IKASTARO ZUZENDARIA / Heize, euskal eskola
publiko ikastetxeen elkarte**

**Iñigo Salaberria Aliaga / IKASTARO ZUZENDARIA / Heize, euskal eskola
publiko ikastetxeen elkarte**

Kolaboratzaileak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



prest_gara